



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

2020ko aurrekontu-proiektuko genero-ikuspegiari buruzko txostena



AURKIBIDE OROKORRA

1.- LEGE- ETA PROGRAMA-ESPARRUA.

2.- UDALAREN BERDINTASUN-PLANA.

3.- ERALDAKETARAKO PAUSUAK.

4.- BALIABIDEAK.

5.- KONPROMISOAK.

6.- LORTUTAKO DATUEN ANALISIA.

7.- ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

1.- LEGE- ETA PROGRAMA-ESPARRUA

EUSKO JAURLARITZA

Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legea. 14. artikulua. "Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan."

18.1. artikulua. "Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteez modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua."

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana. Gobernu ona lortzeko bi helburu:

- BG.2. helburua: I Konpromiso Politikoa programako berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuak handitzea.
- BG.10. helburua: III Genero-ikuspegia lan-prozeduretan programako aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.

2.- UDALAREN BERDINTASUN-PLANA

Gasteizko Udalak ibilbide luze eta jarraitua dauka egina bai berdintasun-politikak diseinatzeko eta ezartzeko orduan, bai politika horiek garatzen dituzten plan estrategikoak egiteko orduan.

Gaur egun, Genero Berdintasunerako IV. Planaren barruan, Udalaren ekintza publikoaren orientabide izan nahi da, 2018-2021 aldian sustatzen diren politikek eragin positiboa izan dezaten berdintasunean eta, eskubideen berme-ikuspegitik abiatuta, bidezko hiri justuagoa eta sexu edo generoagatiko diskriminaziorik gabea sortzen lagundu dezaten.

Horretarako, bi erronkari egin behar die aurre erakundeak:

- Berdintasuna udal-politiken eremuan garatu behar da, esparru arautzaile zehatza garatuz, baliabide nahikoz hornituz eta lantalde sendoak eratuz, aliantzak sor ditzaten barruan nahiz bertatik kanpo.
- Xede estrategiko argietarantz aurrera egitea, zeharkakotasuna berdintasun-politika publikoen iraunkortasunerako elementu gisa finka dadin.

Erronka horiei aurre egiteko, genero-ikuspegia pixkanaka aurrekontu-dinamikan txertatzeko prozesua abian jarri du Gasteizko Udalak, helburutzat harturik emakumeek eta gizonen gizartean dituzten beharrak eta posizioak kontuan hartzeaz gain genero-berdintasunera jotzeko tresna izango den aurrekontu baterantz aurrera egitea, Berdintasun Zerbitzuak diseinatutako Hara! Genero-berdintasunerako Planean ezarri bezala.

Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko prozesua progresiboa da, aurrekontuaren neutraltasun-eza hartzen baitu abiapuntutzat, ez dienez berdin eragiten gizonen eta emakumeen, eta, beraz, modu erabakigarrian lagun baitezake berdintasuna sustatzen edo, aitzitik, genero-arrakala sakontzen. Adibidez, etxean laguntzeko zerbitzura bideratutako aurrekontuaren murrizketak nagusiki emakumeek osatzen duten zaintza-profesionalen arloko kolektiboari eragingo dio; aitzitik, kirol-zelaietara bideratutako kredituaren murrizketak gehienbat gizonen osatzen dituzten hiriko futbol-taldeein eragingo die.

Zalantzarik gabe, herritar-kolektibo batzuek eta besteek dituzten baliabideetan eragina duen tresna ahaltsua dira udal aurrekontuak, eta, horregatik, berdintasunaren bidean aurrera egiteko erabili beharra dago. Horregatik, horiek landu, onetsi eta gauzatzeko orduan genero-ikuspegia txertatzeak helburu hauek lortzeko balio izan behar du:



- Berdintasuna sustatzeko tresna baliagarria izatea.
- Aurrekontu-kudeaketa eraginkorragoa lortzea, baita denboran iraungo duen eta jarraitutasuna izango duen metodologia eraginkorra ere.
- Egindako jardueri buruzko datu kuantifikatuak lortzen laguntzea.

Efektu eraldatzailea

Gizarteko kideen artean harreman bidezkoago eta ekitatiboagoak eraikitzearen aldeko konpromisoa eskatzen du genero-ikuspegiak. Horregatik, alde batetik, erakundearen giza baliabide guztiak inplikatu behar ditu, batzuen eta besteen esperientzia, trebetasunak eta ezagutzak barne hartuz, gizarte-desorekak desagerraraztea harturik azken helburutzat, eta, bestetik, sistema politikoaren eta gizartearen beraren interesik eta inplikaziorik gabe ezinezkoa litzatekeen eraldaketa hori gauzatzeko ahalbidetuko duten baliabide ekonomikoak eskaini behar ditu.

3.- ERALDAKETARAKO PAUSUAK

1.- Antolakuntzaren kultura aldatzea, aurrekontu-proposamenei eta jarduketan emaitzei buruzko datuak sartuz, gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez.

Udal-aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko lehen pausuak eman dira, zerbitzu hauekin:

- Prestakuntza Zerbitzua
- Enplegu Zerbitzua
- Gizarte Inklusioaren Zerbitzua

Baina, lan hori emakumeen eta gizonen artean dauden desorekak murriztea ahalbidetuko digun modu eraginkorrean gauzatzeko, beharrezkoa da udal antolakuntza osoaren inplikazioa eta sistema politikoaren konpromisoa.

2.- Beharrak hautematea

1.- Ogasun Sailak eta Berdintasun Zerbitzuak udal sail eta zerbitzuekin batera lan egin behar dute, modu arrazional eta eraginkorrean helburuak zehaztu eta baliabideak antola daitezen.

2.- Honetarako aukera emango diguten tresnak lantzea:

- **Datuak lortzea.**
- **Datuak neurtzea.** Gizon eta emakumeentzako proposamenak. Betearazpena; gizonengan eta emakumeengan duen eragina
- **Lortutako datuak aztertzea.** Horri esker, batetik, lanari ekin ahal izango diogu, premiei lehentasuna emanez, larrialdien, hartzaile-kopuruaren, arazo motaren, esku-hartzearen edo esku ez hartzearen ondorioen eta abarren arabera, eta, bestetik, jarduketan eragin eraldatzailea ebaluatu ahal izango dugu.



- **Etorkizunean erabakiak hartzen laguntzea**, helburuei eta emaitzei buruzko datuen gainean.

4.- BALIABIDEAK

Giza baliabideak

Berdintasunaren eta generoaren arloko prestakuntza-programak sustatu behar dira, generoarekin lotutako gaietan gaitutako plantilla eduki ahal izateko.

Baliabide ekonomikoak

Baliabideen monetarizazioak proiektuaren aurrekontua ekarriko du; horretarako, beharrezkoa da asmo eraldatzailea duten partidak —aurrekontu-kredituak— identifikatzea.

Sailek eta zerbitzuek hainbat partida sartu dituzte 2020rako aurrekontu-proposamenean, zeinek zuzenean erlazionatzen baitute beren jarduna gizon eta emakumeen berdintasunean aurrera egitearekin. (2019-10-30ean onartzeke dago oraindik aurrekontua)

Partida “more” horiek 2381 funtzionalaren barruan —Berdintasun-politiken sustapena— kodetzera joko da, kontrol eta jarraipen hobea lortzeko.

Partiden xehetasunak.

Alkatetza Saila:

Berdintasun Zerbitzua. 2020ko aurrekontua 200.000,00 euro

Bizikidetza eta Aniztasuna: Bizikidetza Plana 200.000,00 euro

Ogasun Saila

Laguntza teknikoa, aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko 20.000,00 euro

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila

GPS: orientabide profesionala berdintasunean 20.000,00 euro

Giza Baliabideen Saila

Genero-berdintasunerako ekintzak 15.375,00 euro

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila

Clara Campoamor hitzarmena 292.135,00 euro

Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saila

Genero-ikuspegia argiteria publikoan 75.000,00 euro

Auzoko azpiegitura berdea, genero-ikuspegiarekin 100.000,00 euro

Kirol eta Osasun Saila

Genero-ikuspegia aztertzea, kirolean 15.000,00 euro

Langile-gastuen I. kapituluaren barruan, funtzional berarekin bereizten dira (2381) berdintasun-politikak sustatzearekin lotutako zereginei zuzenean atxikitako lantaldeak:

Alkatetza Saila:

Berdintasun Zerbitzua eta Funtzio Publikoko Berdintasun Atala 438.820,02 euro

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila

Onarpen lantaldea 272.621,26 euro

Partida horiez gain, udal sail eta zerbitzuen barruan badira hainbat jardura eta proiektu, zein, genero-ikuspegia aintzat hartzen badute ere, argi eta garbi identifikatuta ez baitaude, eta ezagutu eta identifikatu egin beharko lirarteke horiek, aurrekontuaren funtsezko hiru elementuen analisisa egiteko:

- Zenbat gastatzen dugun
- Zertan gastatzen dugun
- Zertarako gastatzen dugun



5.- KONPROMISOAK

Ogasun Saila

- Ebaluatzeko eta aurrekontua likidatzeko txostena egiteko konpromisoa.
- Hurrengo aurrekontuetan genero-ikuspegiarekin aztertuko diren zerbitzu eta jardueren kopurua handitzeko konpromisoa.

6.- LORTUTAKO DATUEN ANALISIA

2019an, udal-egitura eta aurrekontu-prozesua aztertzeari ekin zitzaion, eta, horretarako, galdetegi bat diseinatu zen, egungo egoeraren berri emango ziguten datuak biltzeko eta aurrekontu-programetarako genero-adierazleak identifikatzeko.

Sailetan eta jarduera bakoitzaren arduradunei inkestak egin ondoren, lortutako datuak aztertu dira.

Hauek dira analisi horren helburuak:

- Jarduera bakoitzak generoari dagokionez duen garrantzia kuantifikatzea.
- Diagnostikoa egitea, hurrengo ekitaldietan genero-ikuspegia udal-aurrekontuko arlo guztietan txerta dadin.

Eragin handienekotzat jotzen diren bi sailetan —Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila eta Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila— jarduerak bereizi dira, eta lortutako datuetan oinarrituta, jarduera bakoitzaren laburpena egin da, generoari dagokionez duten garrantzi-maila zehazteko:

6.1.- Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila:

- a. Neguan ostatu emateko bitartekoa
- b. Harrera-etxeak
- c. Etxe irekia
- d. Gazteentzako etxebizitza erdi zainduak
- e. Gizarteratu

6.1.a.- Neguan ostatu emateko bitartekoa:

Udalerrian bizitegi-bazterketa bizi duten pertsonen saso jakin batean —eguraldirik txarrena egiten duen urte-sasoian— arreta eskaintzeko programa bat da jarduera hau.

Beraz, aldi batekoa da, eta Euskal Meteorologia Zerbitzutik eta hari lotutako udal-planetan —elurteen, haizeteen edo tenperatura oso baxuen aurrean jarduteko planetan— arriskuen prebentziorako ematen diren orientabideei lotuta dago.

Leku-kopurua, gehienez: 20

1. Jardueraren aurkezpena.

- Giza baliabideen atala. Gizarte Politiken Sailaren Harrera Sozialerako Udal Zentroaren programaren barrukoa.
- 8 udal langilek lan egiten dute jarduera horretan, eta horietatik 4k berdintasunaren arloko prestakuntza dute.

2. Jardueraren genero-pertinentziaren analisia, deskribapena eta helburuak.

Jarduera bai da pertinente, generoari dagokionez → Neguko hilabeteetan ostatu emateko tresna, zeinetan lo egiteko eta gosaltzeko zerbitzua eskaintzen baitzaie etxerik ez dutenei. Hau da, ostatu emateko tresna bat da, zeinek aukera ematen baitu eguraldirik txarrena egiten duen hilabeteetan etxerik ez duten pertsonak Harrera Sozialerako Udal Zentroan hartzeko.

- Helburu nagusiak:
 - Oinarrizko beharrak estaltzea.
 - Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak garatzea.
- Ez da jarduera horren helburu nagusia, baina dauden genero-desberdintasunak desagerrarazi edo murrizteko neurriak jasotzen ditu:
- Ekintzatik sortzen den informazio guztiak edo ia guztiak sexuaren arabera bereizita aurkezten ditu datuak.
- Ekintzarekin zerikusia duten lan-egituretan emakumeen presentzia orekatua bultzatzeko neurriak ezarri dira.
- Herritarrek espazioa eta materialak nola erabiltzen dituzten aztertu da, eta neurri zuzentzaileak ezarri.
- Ekintzak berdintasunerako neurri espezifikoak implementatzen ditu.
- Ekintza kudeatzen duten udal langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
- Ekintzaren oroitidazkiak egin dira, berdintasuna aintzat harturik.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da ekintzaren inguruan sortzen den dokumentazio guztian edo ia guztian.

3. Garrantzia, generoari dagokionez.

- generoari dagokionez duen garrantzia: **HANDIA** (5)

1. Xede-populazioa: herritarrak, oro har → Etxebizitarik ez duten eta kalean lo egiten duten pertsonak.
BALIOA, 3.
2. Aldatzeko potentzialtasuna:
BALIOA, 3.

4. Jardueraren helburuen eta biztanleriaren azterketa.

- Jarduera honetan, helburuak genero-ikuspegiarekin diseinatuta daude: espazioak, komunak eta abar.
- Helburuek ekintza positiboak dituzte.
- Zuzentzen gatazka biztanleria: 2 emakume eta 20 gizon.
- Iristen zaion biztanleria: emakume batek eta 8 gizonek erabiltzen dute zerbitzua.
- Gizarte-esklusioa edo etxebizitarik eza bizi duten pertsonak dira.
- Ekintzek zer mailatan erantzuten dieten antzemandako desberdintasunei: **HANDIA** → Pertsonak detektatzen dituzte → Hartu egiten dituzte → Beren egoeraren arabera bideratzen dituzte.

5. Helburu eta ekintzen ondorio diren kontratu, hitzarmen, dirulaguntza eta laguntzen azterketa.

- Zerbitzu honek zuzeneko kudeaketa du, eta, beraz, ez du kontraturik edo hitzarmenik egiten, ezta dirulaguntza edo laguntzarik ematen ere.

6. Jarduera hobetzeko hausnarketa eta proposamenak.

- Aurrerapena: emakumeen ordezkapen txikiagoa, zerbitzuko langileak gutxitzea.
- Neurri zuzentzaileak: higiene-espazioak gaitzea, emakumeen presentzia murriztea.
- Azterketa: Etxerik gabeko pertsonentzako Euskal Estrategia (2018-2021).

Ateratzen diren datuak taula hauetan zehazten dira:

2019	PRESTATUA	PRESTATU GABEA
UDAL LANGILEA	4	4
2019an, prestakuntza eman zaie zainzaileei eta zerbitzari garbitzaileei, Funtzio Publikoak antolatutako berdintasun-ikastaroan. Datu horiek prestakuntzarekin erkatu beharko lirateke, eta ostatu emateko bitartekoan zereginak burutzen dituztenen dedikazioaren zatia hainbanatu: 2 zainzailearen errefortzua kontratatzen da, eta zerbitzari garbitzaile berek eskaintzen diote beren lanaldiaren parte bat espazio horri.		

2019	EMAKUMEA	GIZONAK
Zuzentzen gataizkion biztanleria	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe
Iristen garen biztanleria	15	147

Taula honetan kontuan hartu behar da 20 lekuak azarotik apirilera bitartean okupatzen direla, eta pertsona desberdinek, hau da, emakumeen presentziari buruzko benetako datuak 2018ko azarotik 2019ko apirilera bitartekoak direla.

Aztertutako datuen arabera, generoaren garrantzi-maila handia dela ondorioztatzen da.

Neguan ostatu emateko baliabidearen txostena, 2018/2019ko edizioa

Aldagai demografikoen analisisa

Aurreko edizioarekin alderatuta, alde nabarmenak daude neguan ostatu emateko baliabidea erabili duten pertsonen generoari, jatorriari eta adinari dagokienez.

GENEROA: emakumeen presentzia esanguratsua da oraindik ere, 10 erabilzaitetik ia 1 baitira (% 9,26). Hala ere, aurreko urtearekin alderatuta, nabarmen murriztu da kopurua (25etik 15era) eta ordezkapena (3'5 puntu).

Bertan emandako gauak kontuan hartuz gero, ordezkapen hori are gehiago jaisten da, % 4,4raino; izan ere, 1835 erabileretatik 81 izan dira emakumezkoenak. Kolektibo horri kontsiderazio berezia esleitzen zaio, kalean edo estaldura txikiagoko baliabideetan egoteak arrisku handiagoa dakarkiolako, eta, horregatik, baliabide horretan duen presentzia saihestu edo murriztu nahi da. Horrenbestez, batez bestekoa baino nabarmen motzagoak izan dira egonaldiak (5,4, 11,3ren aldean), eta egindako gauen arabera banaketak ere alde nabarmenak erakusten ditu, erabilera orokorraren aldean. Horrela, % 50ek baino gehiagok gau



bakar batez erabili zuten, 10ek gau bat edo bitan, eta 3k bakarrik (% 20) egin zuten gaua bertan astebete baino gehiagoz.

Aurrekontu-eraginari dagokionez, udal honek kudeaketa zuzenaren bitartez hartu zuen bere gain baliabide honetarako zaintza eta gizarteratze figuren kontratazioa (programa-kontratua, 1. kapitulua, azarotik apirilera bitartean, txostenean proposatu bezala).

Behean adierazten partidatik, adierazten den kontzeptua ordaintzen da.

Zerbitzua	Funtz.	Partida	Deskribapena	Oharrak	Aurrekontua 2019
11.15	2324	22106	ELIKADURA	Gosari eta askariak	1.000,00

6.1.b.- Harrera-etxeak (laguntze-programa):

Etxebizitzarik gabe dauden pertsona eta familiak. Ostatu ematen zaie egonaldi laburra edo ertaina egiteko premia duten pertsona edo bizikidetzta-unitateei, gizarte-larrialdiko egoeraren baten ondorioz etxebizitzarik gabe geratu direlarik.

1. Jardueraren aurkezpena.

- Gizarte Politiken Sailaren harrera-baliabideen programaren barruan sartzen da.
- 3 udal langilek lan egiten dute jarduera horretan, eta guztiak ere prestakuntza dute.

2. Jardueraren genero-pertinentziaren analisisa, deskribapena eta helburuak.

Jarduera bai da pertinente, generoari dagokionez →Etxebizitzarik gabe dauden pertsona eta familiak. Ostatu ematen zaie egonaldi laburra edo ertaina egiteko premia duten pertsona edo bizikidetzta-unitateei, gizarte-larrialdiko egoeraren baten ondorioz etxebizitzarik gabe geratu direlarik.

- Helburu nagusiak:
 - Elikaduraren eta ostatuaren arloko oinarritzko premiak estaltzea.
 - Gizarteratzeko prozesuan trebetasunak eskuratzea (autonomia pertsonala, etxebizitzaren bilaketa, osasun-esparruak...).
 - Etxebizitza independente bat eskuratzea.
- Ez da jarduera horren helburu nagusia, baina dauden genero-desberdintasunak desagerrarazi edo murrizteko neurriak jasotzen ditu:
 - Ekintzatik sortzen den informazio guztiak edo ia guztiak sexuaren arabera bereizita aurkezten ditu datuak.
 - Herritarrek, oro har, espazioa eta materialak nola erabiltzen dituzten aztertu da, eta neurri zuzentzaileak ezarri.
 - Ekintza kudeatzen duten udal langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Ekintza kudeatzen duten Udalaz kanpoko langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Ekintza ebaluatzen duten pertsonen berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da ekintzaren inguruan sortzen den dokumentazio guztian edo ia guztian.



Hauek osatzen dute jarduera horren aurrekontua:

Programa (EULEN kontratua = 104.042,76) + tresnak (436,81) + altzariak (3.545,42) + makinak (1.564,89) + arreta soziala (1.300) + langileak (Baliabideen burua, % 15 + psikologoa, % 28 + % 50, gizarte-langilea)

AURREKONTUA, GUZTIRA = 104.042,76 + 436,81 + 3.545,42 + 1.564,89 + 1.300 + 29.976,19 + 13.541,29 + 18.337,02 = **172.744,38 euro**

3. Garrantzia, generoari dagokionez.

- generoari dagokionez duen garrantzia: **HANDIA** (5)

3. Xede-populazioa: Herritarrak, oro har → Ostatua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak **BALIOA, 2.**
4. Aldatzeko potentzialtasuna: **BALIOA, 3.**

4. Jardueraren helburuen eta biztanleriaren azterketa.

- Jarduera honetan, helburuak genero-ikuspegiarekin diseinatuta daude: espazioak, komunak eta abar.
- Helburuek ekintza positiboak dituzte.
- Jarduera hori 28 emakumek eta 31 gizonak erabiltzen dute; beraz, % 47,45 emakumeak dira.
- Ekintzek zer mailatan erantzuten dieten antzemandako desberdintasunei: **HANDIA** → Lehentasuna ematen zaio seme-alabak dituzten amek etxebizitza izateari.

5. Helburu eta ekintzen ondorio diren kontratu, hitzarmen, dirulaguntza eta laguntzen azterketa.

- Zerbitzu honek zuzeneko kudeaketa du, eta, beraz, ez du kontraturik edo hitzarmenik egiten, ezta dirulaguntza edo laguntzarik ematen ere.

6. Jarduera hobetzeko hausnarketa eta proposamenak.

- Bereziki, seme-alabak dituzten amen egoera aztertzen jarraitzea.
- Azterketa: Etxerik gabeko pertsonentzako Euskal Estrategia (2018-2021).

Ateratzen diren datuak taula hauetan zehazten dira:

2019	PRESTATUA	PRESTATU GABEA
UDAL LANGILEA	3	0

2019	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatazkaizkion biztanleria	% 60	% 40
Iristen garen biztanleria	28	31

Prestakuntza orokorra eta oinarritzkoa



Gizarte Inklusioa - Harrera-baliabideak		
Baliabidea	Lekuak, gehienez	Uztilaren 1ean
		Bizikidetza-unitatea
HARRERA-ETXEBIZITZAK (Eulen kontratua)	42	Bakarra, giz.: 3 N., seme-alabekin: 1 Guraso bak.: 8 emakume, seme-alabekin
Urriaren 1ean		
HARRERA-ETXEBIZITZAK	35	Bakarra, giz.: 1 N., seme-alabekin: 1 Guraso bak.: 7 emakume, seme-alabekin

6.1.c.- Etxe irekia:

Une jakin batean etxebizitarik ez duten pertsonak. Hau da, etxebizitarik gabe dauden pertsonen ostaturik eta bizikidetza emateko baliabidea da Etxe Irekia, eta ostatu- eta mantenu-zerbitzuak eskaintzen ditu, intentsitate handiko laguntzarekin.

1. Jardueraren aurkezpena.

- Gizarte Politiken Sailaren harrera-baliabideen programaren barruan sartzen da.
- 2 udal langilek lan egiten dute jarduera horretan, eta guztiak ere prestakuntza dute.

2. Jardueraren genero-pertinentziaren analisia, deskribapena eta helburuak.

- Jarduera bai da pertinente, generoari dagokionez →Une jakin batean etxebizitarik ez duten pertsonak. Hau da, etxebizitarik gabe dauden pertsonen ostaturik eta bizikidetza emateko baliabidea da Etxe Irekia, eta ostatu- eta mantenu-zerbitzuak eskaintzen ditu, intentsitate handiko laguntzarekin.
- Helburu nagusiak:
 - Elikaduraren eta ostatuaren arloko oinarritzko premiak estaltzea.
 - Gizarteratzeko prozesuan trebetasunak eskuratzea (autonomia pertsonala, etxebizitzaren bilaketa, osasun-esparruak...).
 - Etxebizitza independente bat eskuratzea.
- Ez da jarduera horren helburu nagusia, baina dauden genero-desberdintasunak desagerrarazi edo murrizteko neurriak jasotzen ditu:
 - Ekintzatik sortzen den informazio guztiak edo ia guztiak sexuaren arabera bereizita aurkezten ditu datuak.
 - Herritarrek, oro har, espazioa eta materialak nola erabiltzen dituzten aztertu da, eta neurri zuzentzaileak ezarri.
 - Ekintza kudeatzen duten udal langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Ekintza kudeatzen duten Udalez kanpoko langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.



- Ekintza ebaluatzen duten pertsonak berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da ekintzaren inguruan sortzen den dokumentazio guztian edo ia guztian.

Hauek osatzen dute jarduera horren aurrekontua: garraioa + gaueko zaintza (22.984,49) + tresnak (650+1.200) + altzariak (1.134) + etxe irekia hitzarmena + langileak (% 3, giz. ink. burua (1) + % 33, giz. ink. erdi mailako tekn. (6))

AURREKONTUA, GUZTIRA = 9.436,08 + 22.984,49 + 1.850 + 1.134 + 314.829,84 + 2.293,39 + 17.898,61 = 370.426,41 euro

3. Garrantzia, generoari dagokionez.

- generoari dagokionez duen garrantzia: **HANDIA** (4)
- Egoeren arabera esku hartzen da.

5. Xede-populazioa: Herritarrak, oro har → Etxebizitarik ez duten pertsonak, 18 urtetik gorakoak, zaintza intentsiboa behar dutenak. BALIOA, 3.
6. Aldatzeko potentzialtasuna: BALIOA, 3.

4. Jardueraren helburuen eta biztanleriaren azterketa.

- Jarduera honetan, printzipioz, helburuetako bat bera ere ez dago genero-ikuspegiarekin diseinatuta, baina gizareratze-prozesurako trebetasunak eskuratzea delarik helburua, bai garatzen ditu ekintza positiboak; izan ere, modu desberdinean esku hartzen dute, gizonak edo emakumeak izan.
- 42 gizonak eta 19 emakumek erabiltzen dute jarduera hori; beraz,% 31,15 emakumeak dira.
- Ekintzek zer mailatan erantzuten dieten antzemandako desberdintasunei: ERTAINA →Genero-indarkeria jasan duten pertsonentzako segurtasun-eremua.

5. Helburu eta ekintzen ondorio diren kontratu, hitzarmen, dirulaguntza eta laguntzen azterketa.

- 2018ko aurrekontuan, zaintza-kontratuak berdintasun-klausulak izan zituen, eta 22.984,49 euroko aurrekontua.
- 2018ko aurrekontuan sei hitzarmen izan ziren —teknikariekin—, eta hitzarmen horietan ez zegoen berdintasun-klausularik.

6. Jarduera hobetzeko hausnarketa eta proposamenak.

- Aurreko urteen aldean, izan da aurrerapenik; izan ere, sentsibilizazio eta hausnarketa handiagoa dago lantaldean, indarkeria matxistaren gainean.
- Neurri zuzentzaileak ezarri dira; horien artean, nabarmentzekoa da indarkeria matxista erakusten duen edozein jokabidek kanporatzea dakarrela berekin.
- Azterketa: Etxerik gabeko pertsonentzako Euskal Estrategia (2018-2021).

Ateratzen diren datuak taula hauetan zehazten dira:

2019	PRESTATUA	PRESTATU GABEA
UDAL LANGILEA	2	0

2019	EMAKUMEA	GIZONAK
Zuzentzen gatzazkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	19	42

Gizarte Inklusioa - Harrera-baliabideak		
Baliabidea	Lekuak, gehienez	Uztilaren 1ean
		Bizikidetz-unitatea
ETXE IREKIA	10ek ostatua 6k mantenua	Bakarra, giz.: 9 Bakarra, emak.: 2 N., seme-alabarik gabe:

Gizarte Inklusioa - Harrera-baliabideak		
Baliabidea	Lekuak, gehienez	Urriaren 1ean
		Bizikidetz-unitatea
ETXE IREKIA	10ek ostatua 6k mantenua	Bakarra, giz.:10 Bakarra, emak.:3 N., seme-alabarik gabe:

Estaldura eta tutoretza handiagoa duen baliabide horretan, desiragarria da emakumeak lehenbailehen sartzera bizitza autonomo batean, eta, horregatik, intentsitate handiagoko programa bat egingo litzateke, haiei zuzenduta. Guztizko zenbaketan ageri den ordezkari txikia nahi izatekoa da, berdintasun-ekintzetarantz joz gero.

6.1.d.- Zainpeko etxebizitzak:

Egoitza-bazterketako egoeran dauden 18 eta 25 urte bitarteko gazteentzako harrera-baliabidea.

1. Jardueraren aurkezpena.

- Gizarte Politiken Sailaren harrera-baliabideen programaren barruan sartzen da.
- 3 udal langilek lan egiten dute jarduera horretan, eta guztiek ere prestakuntza dute.

2. Jardueraren genero-pertinentziaren analisisa, deskribapena eta helburuak.

- Jarduera bai da pertinente, generoari dagokionez → Etxebizitzarik gabe dauden gazteak, 18 eta 25 urte bitartekoak.
- Helburu nagusiak:
 - Elikaduraren eta ostatuaren arloko oinarritzko premiak estaltzea.
 - Gizarteratzeko prozesuan trebetasunak eskuratzea (autonomia pertsonala, etxebizitzaren bilaketa, osasun-esparruak...).
 - Etxebizitza independente bat eskuratzea.
 - Ez da jarduera horren helburu nagusia, baina dauden genero-desberdintasunak desagerrarazi edo murrizteko neurriak jasotzen ditu:



- Ekintzatik sortzen den informazio guztiak edo ia guztiak sexuaren arabera bereizita aurkezten ditu datuak.
- Herritarrek, oro har, espazioa eta materialak nola erabiltzen dituzten aztertu da, eta neurri zuzentzaileak ezarri.
- Ekintza kudeatzen duten udal langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
- Ekintza kudeatzen duten Udalaz kanpoko langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
- Ekintza ebaluatzen duten pertsonen berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da ekintzaren inguruan sortzen den dokumentazio guztian edo ia guztian.

Hauek osatzen dute jarduera horren aurrekontua: hitzarmena (55.000) + gizarte-arreta (12.000) + tresnak (250) + langileak (hiru langile, % 5 + burua, % 3)

AURREKONTUA, GUZTIRA = 55.000 + 12.000 + 250 + 168.230,03 x 0,05 + 59.952,38 x 0,03 = **77.460,07 euro**

3. Garrantzia, generoari dagokionez.

generoari dagokionez duen garrantzia: **HANDIA** (5-6)



- 7. Xede-populazioa: Etxerik ez duten 18 eta 25 urte bitarteko gazteak. BALIOA, 2.
- 8. Aldatzeko potentzialtasuna: BALIOA, 3.

4. Jardueraren helburuen eta biztanleriaren azterketa.

- Jarduera honetan, helburuak genero-ikuspegiarekin diseinatuta daude: espazioak, komunak, logelak...
- Helburuek ekintza positiboak dituzte.
- Jarduera hori 12 gizonen eta 5 emakumeen erabiltzen dute; beraz, % 35,29 emakumeak dira.
- Ekintzek zer mailatan erantzuten dieten antzemandako desberdintasunei: ERTAINA → Egokitu egiten dira, egoeren arabera.

5. Helburu eta ekintzen ondorio diren kontratu, hitzarmen, dirulaguntza eta laguntzen azterketa.

- Programa honek hitzarmen bat du, 2019ko aurrekonturako. Hitzarmen horrek berdintasun-klausulak jasotzen ditu, eta gizon eta emakume bana izan behar da, baldintza berdinetan.

6. Jarduera hobetzeko hausnarketa eta proposamenak.

- Ikusten diren egoera ezberdinen arabera, horietara moldatzen joatea.
- Azterketa: Etxerik gabeko pertsonentzako Euskal Estrategia (2018-2021).

Ateratzen diren datuak taula hauetan zehazten dira:

2019	PRESTATUA	PRESTATU GABEA
UDAL LANGILEA	3	0

2019	EMAKUMEA	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	6	11

6.1.e.- Gizarteratu:

Gizarteratze eta Laneratze Atalak egiten dituen lantegi eta ikastaroak dira, eta gizarte-bazterketaren adierazleak ageri dituzten pertsonen zuzenduta daude. Ongizatea eta garapen pertsonala, pertsonen arteko harremanak eta gizarte-partaidetza sustatzen laguntzea du xede, gaitasun pertsonalak, sozialak nahiz lanean hasi aurrekoak mantendu, berreskuratu eta sustatuz.

1. Jardueraren aurkezpena.

- Gizarteratu programazioaren barrukoa da, Gizarte Politiken Saileko Gizarte Inklusioaren Zerbitzuaren barruan.
- 5 udal langilek lan egiten dute jarduera horretan, eta guztiak ere prestakuntza dute.

2. Jardueraren genero-pertinentziaren analisia, deskribapena eta helburuak.

- Jarduera bai da pertinente, generoari dagokionez →Gizarteratze eta Laneratze Atalak egiten dituen lantegi eta ikastaroak dira, eta gizarte-bazterketaren adierazleak ageri dituzten pertsonen zuzenduta daude. Ongizatea eta garapen pertsonala, pertsonen arteko harremanak eta gizarte-partaidetza sustatzen laguntzea du xede, gaitasun pertsonalak, sozialak nahiz lanean hasi aurrekoak mantendu, berreskuratu eta sustatuz.
- Helburu nagusiak:
 - Hizkuntza-inklusioa sustatzea.
 - Gizarte-inklusioa erraztea, hizkuntzaren bitartez.
 - Inbertsio komunitarioa eta partaidetza soziala bultzatzea.
 - Auto-estimua indartzea.
 - Ongizate eta egonkortasun pertsonala sustatzea.
 - Gizarte- eta hezkuntza-gaitasunak bereganatu eta garatzea.
- Ez da jarduera horren helburu nagusia, baina dauden genero-desberdintasunak desagerrarazi edo murrizteko neurriak jasotzen ditu:
 - Berdintasunaren helburua ekintzaren helburu orokor gisa sartu da plangintzan edo diseinuan.
 - Ekintza diseinatzeko, sexuaren arabera bereizitako datuekin egindako diagnostikoa hartu da abiapuntutzat.
 - Ekintzatik sortzen den informazio guztiak edo ia guztiak sexuaren arabera bereizita aurkezten ditu datuak.
 - Ekintzarekin zerikusia duten lan-egituretan emakumeen presentzia orekatu bultzatzeko neurriak ezarri dira.
 - Ekintzaren edukiak berrikusi dira, berdintasunera egokitzeko.



- Herritarrek, oro har, espazioa eta materialak nola erabiltzen dituzten aztertu da, eta neurri zuzentzaileak ezarri.
- Ekintzak berdintasunerako neurri espezifikoak inplementatzen ditu.
- Aiten edo, oro har, gizonengan erantzunkidetasuna sustatzeko neurriak sartu dira.
- Ekintzak genero-indarkeriaren prebentzioa ahalbidetuko duen protokolo edo tresna espezifiko bat du, dela neskei begira, dela haien amei begira.
- Ekintza kudeatzen duten udal langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
- Ekintza kudeatzen duten Udalaz kanpoko langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
- Ekintza ebaluatzen duten pertsonak berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
- Ekintzaren oroitidazkiak egin dira, berdintasuna aintzat harturik.
- Ekintzak berdintasunerako baliabideak edo neurriak ditu.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da ekintzaren inguruan sortzen den dokumentazio guztian edo ia guztian.
- Irudiaren erabilera ez-sexista egiten da, bai dokumentazioan, bai materialetan.

Hauek osatzen dute jarduera horren aurrekontua: Gizarteratu programa + materiala (17.000) + lanpostuak (% 20, burua + % 90, psikologoa + % 90, karrerako funtz. + % 90 behin-behinekoak)

AURREKONTUA, GUZTIRA = 728.567,71 + 17.000 + 76.446,23 x 0,20 + 48.361,75 x 0,90 + 48.855,33 x 0,90 + 54.670,79 = **897.556,04 euro**

3. Garrantzia, generoari dagokionez.

generoari dagokionez duen garrantzia: **HANDIA** (5-6)

9. Xede-populazioa: Gizarte-inklusioko pertsonak (16 eta 65 urte artekoak). BALIOA, 2.
10. Aldatzeko potentzialtasuna: BALIOA, 3.

4. Jardueraren helburuen eta biztanleriaren azterketa.

- Jarduera honetan, helburuak genero-ikuspegiarekin diseinatuta daude: neska eta mutilentzako eta aita eta amentzako espazio bereziak, komunak...
- Helburuek ekintza positiboak dituzte.
- Programa hori erabiltzen duten pertsonen % 55,22 emakumeak dira, eta % 44,78, berriz, gizonak. Programa horiek erabiltzen dituztenen batez besteko adin-tartea 25 eta 50 urte artekoa da.
- Ekintzek zer mailatan erantzuten dieten antzemandako desberdintasunei: **HANDIA** → Genero-bereizketarik ez egiten saiatzen dira, hautemandako egoeren eta beharren arabera erantzunez.

5. Helburu eta ekintzen ondorio diren kontratu, hitzarmen, dirulaguntza eta laguntzen azterketa.

- 2019-2020ko aurrekonturako aurreikusitako kontratuak ditu Gizarteratu programak. Gauzatze-baldintza berezietan, kontratatutako pertsona oro



berdintasunean prestatzeko obligazioa jasotzen da (10 ordu gutxienez), baita genero-indarkerian ere (10 ordu gutxienez), gauzatzeko ezarritako epean. Programa honetatik sortzen diren ekintza guztiek familia-kargak dituzten emakumeentzako kontziliazio-espazioen beharra jasotzen dute, eta adingabeak zaintzeko laguntza eskaintzen. Era berean, ordutegi-programazioa eskola-egutegira eta -agendara egokitzen da (pertsonek beren kargura dituzten emakumeentzako denbora-tarteak).

6. Jarduera hobetzeko hausnarketa eta proposamenak.

- Generoari dagokionez inongo eremutan bereizketarik ez egitearen kontua orokortuz doa, gauza natural eta ohiko gisa ikusten da.
- Aurreko ekitaldiekin alderatuta, neurri zuzentzaileak aurreikusi dira berdintasunerantz aurrera egiteko: prestakuntza handiagoa, sentsibilizazio-saioak, genero-indarkeriaren prebentzioa...
- Ez dira oinarritzen genero-ikuspegia duen inongo azterlanetan.

Ateratzen diren datuak taula hauetan zehazten dira:

2019	PRESTATUA	PRESTATU GABEA
UDAL LANGILEA	5	0

2019	EMAKUMEA	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 55,22	% 44,78

2019ko urrian, genero-indarkeriaren arloko 2 sentsibilizazio- eta prestakuntza-saio egin dira, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak diruz lagundutako lan-proiektuak garatzen dituen emakumezko abokatu kolonbiar bat bertan zela aprobetxatuz.

2019	EMAKUMEA	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	100 %	0
Iristen garen biztanleria	70	

2018an, profesionalentzako saioak egin ziren, emakumezko abokatu nigeriar bat bertan zela aprobetxatuta. Eragin puntual handiko ekintzak dira, eta, nolabait, genero-berdintasunarekiko gizarte-sentsibilitatea areagotzen dute.

6.2.- Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila:

- Enplegurako prestakuntza
- Kontratazioa
- Lanbide-orientabidea Bitartekaritza

6.2.a.- Enplegurako prestakuntza:

Kualifikazioa eduki nahiz ez eduki lan-merkatuan sartzeko lanbide-gaitasunak hobetzeko interesa duten kolektiboei zuzendutako prestakuntza-jarduerak.

1. Jardueraren aurkezpena.

- Prestakuntza-atal edo -zerbitzuko da.
- 24 udal langilek lan egiten dute jarduera horretan, honela egituratuta: zuzendaritza-langilea (1), kudeaketa-langileak (7, zeinetatik bik berdintasunaren arloko prestakuntza baitute), administrazio-langileak (5) eta mantentze-lanetako langileak (3, zeinetatik batek berdintasunaren arloko prestakuntza baitu). Bada irakaslerik ere (8); horietatik seik berdintasunaren arloko prestakuntza jaso dute.

2. Jardueraren genero-pertinentziaren analisisa, deskribapena eta helburuak.

- Jarduera bai da pertinente, generoari dagokionez →Kualifikazioa eduki nahiz ez eduki lan-merkatuan sartzeko lanbide-gaitasunak hobetzeko interesa duten kolektiboei zuzendutako prestakuntza-jarduerak.
- Helburu nagusiak:
 - Profesionalki gaitzea, langabeei lehenetasuna emanez, enplegua sortzeko ikuspegia duten jarduera-sektoreetan. → Prestakuntza, orokorrean.
 - Kualifikaziorik gabeko 30 urtetik beherako emakume gazteak gizarte-eta lan-arloan integratzea, lehenetasunez. → Genera30
- Genero 30en kasuan, helburu nagusia genero-desberdintasuna murriztea da; prestakuntzaren kasuan, berriz, ez da hori helburu nagusia, baina dauden genero-desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko neurriak jasotzen ditu:
 - Berdintasunaren helburua ekintzaren helburu orokor gisa sartu da plangintzan edo diseinuan.
 - Ekintza diseinatzeko, sexuaren arabera bereizitako datuekin egindako diagnostikoa hartu da abiapuntutzat.
 - Ekintzatik sortzen den informazio guztiak edo ia guztiak sexuaren arabera bereizita aurkezten ditu datuak.
 - Ekintza kudeatzen duten udal langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Ekintza ebaluatzen duten pertsonen berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Ekintzaren oroitidazkiak egin dira, berdintasuna aintzat harturik.
 - Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da ekintzaren inguruan sortzen den dokumentazio guztian edo ia guztian.
 - Zerbitzu laguntzaile gisa dihardu Berdintasun Zerbitzuak ekintzaren garapenean.

Hauek osatzen dute jarduera horren aurrekontua: I. kapitulua + II., IV., VI. kapituluak
AURREKONTUA, GUZTIRA = 1.142.192 + 1.908.045 = 3.050.237 euro

3. Garrantzia, generoari dagokionez.

generoari dagokionez duen garrantzia: HANDIA (5-6)

- 11. Xede-populazioa: garrantzia, 2 BALIOA.
 - A. Ikastaroetan sartzeko lehentasuna dute emakumeek, baldintza-beretan.
 - B. Genera30 berariazko proiektua →
Emakumeen lehentasuna.
- 12. Aldatzeko potentzialtasuna: garrantzia, 3 BALIOA.
 - A. Modu progresiboan, gizonak nagusi diren lanbideetan sartzea emakumeak.
 - B. Ikasketarik gabeko emakume gazteak prestakuntzara eta enplegura hurbiltzea, eta ezkutuko merkatutik ateratzea.

4. Jardueraren helburuen eta biztanleriaren azterketa.

- Jarduera horretan, prestakuntzaren helburua ez dago genero-ikuspegiarekin diseinatuta, eta ez du ekintza positiborik. Helburuak genero-ikuspegiarekin diseinatuta daude: espazioak, komunak, logelak...
- Genera30 helburua bai dago genero-ikuspegiarekin diseinatuta, eta ekintza positiboak ditu, hala nola erakartzea, zeharkako prestakuntza, bitartekaritza...
- Prestakuntzara, oro har, bideratutako aurrekontua 2.669.284,5 eurokoa litzateke, eta 380.952,5 eurokoa Genera30-ena, genero-ikuspegiarekin diseinatutako aurrekontuaren zatia.
- Prestakuntzari dagokionez, oro har, biztanleria osoarengana jotzen dugu (% 50 emakumeak eta % 50 gizonak), eta 1.099 pertsonarengana iristen da, —% 44,5 emakumeak eta % 55,5 gizonak—.
- Genera30 kontuan hartuta, % 60 emakumeei zuzenduta dago, eta % 40 gizonari, eta guztira 60 pertsonarengana iristen da —% 40,74 emakumeak eta % 59,26 gizonak—.
- Ekintzek zer mailatan erantzuten dieten antzemandako desberdintasunei: HANDIA → Gizarteratze eta laneratzea areagotzea, baita emakumeen gaitasun profesionala ere.

5. Helburu eta ekintzen ondorio diren kontratu, hitzarmen, dirulaguntza eta laguntzen azterketa.

- Jarduera honek zortzi kontratu ditu, 2018ko aurrekontuan, guztira 571.649,55 euro. Zortzi horietatik lauk berdintasun-klausulak jasotzen dituzte, eta beste hirutan metodologia eta balorazio-irizpideak jasotzen dira; guztira, berdintasun-klausulekin, 504.649,55 euro. Berdintasun-klausulak dituzten horietatik bik emakumeentzako prestakuntza-ekintza eskusiboak dituzte.
- 2018ko aurrekontuan bost hitzarmen daude aurreikusita, 318.700 euro guztira, eta horietatik hiruk berdintasun-klausulak dituzte, guztira 246.700 euro. Aipatzekoa da emakumeentzat lehentasunezkoa den prestakuntza-ekintza bat dagoela bost hitzarmenen artea.

6. Jarduera hobetzeko hausnarketa eta proposamenak.

- Aurrerapenak, aurreko ekitaldien aldean:
 - Lehentasunez emakumei zuzendutako proiektu espezifiko bat egitea.



- Berdintasun-klausulak eta balorazio-irizpideak sartzea.
- Berdintasunerantz aurrera egiteko neurri zuzentzaileak:
 - Emakumeek ordezkapen txikia duten jarduera-sektore ekonomikoetan horien prestatzea lehentasunezko helburutzat mantentzea.

Ateratzen diren datuak taula hauetan zehazten dira:

UDAL LANGILEA	PRESTATUA	PRESTATU GABEA
2018. urtea	(9)	(15)
2020 helburua	(12)	(12)

➤ Prestakuntza, oro har:

2018. urtea	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 44,50 (489)	% 55,50 (610)
2020 helburua	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 46	% 54

➤ Genera30:

2019. urtea	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 60	% 40
Iristen garen biztanleria	% 40,74 (25)	% 59,26 (35)
2020 helburua	PROIEKTU BUKATUA	

* Europako Gizarte Funtsak finantzaturako programa, dagoeneko bukatua.

6.2.b.- Kontratazioa:

Administrazioaren langileen zuzeneko kontratazioa eta enpresei laguntzak ematea, kontrataziorako edo kontratuak behin betikotzat bihurtzeko.

1. Jardueraren aurkezpena.

- Enplegua Sustatzeko Atalaren barruan dago.
- 13 udal langile, jarduera horretarako lanean, dedikazio-ehuneko ezberdinekin: kudeaketa zuzeneko langileak (3), zeinetatik 2k berdintasunaren arloko



prestakuntza baitute; zuzendaritza-langileak (2), zeinetatik 2k berdintasunaren arloko prestakuntza baitute; mantentze-lanetako langileak (2), zeinetatik zeinetatik batek berdintasunaren arloko prestakuntza baitu; irakasleak (6), guztiak berdintasunaren arloko prestakuntzarekin. 13 pertsonatik 11k berdintasunaren arloko prestakuntza dute.

2. Jardueraren genero-pertinentziaren analisisa, deskribapena eta helburuak.

- Jarduera bai da pertinente, generoari dagokionez → Administrazioaren langileen zuzeneko kontratazioa eta enpresei laguntzak ematea, lehen kontrataziorako edo kontratuak behin betikotzat bihurtzeko.
- Helburu nagusiak:
 - Administrazioak bazterketa-arriskuan dauden kolektiboen kontratazioa sustatzea, lehen lan-esperientzia edota lan-merkatura itzultzea erraztuz...
 - Udalerriko enpresei laguntzea, kontratazio berriak egin ditzaten edo aldi baterako kontratuak eta mugagabeak eralda ditzaten.
- Jarduera honen helburu nagusia ez da genero-desberdintasuna murriztea, baina horretarako neurriak jasotzen ditu:
 - Berdintasunaren helburua ekintzaren helburu orokor gisa sartu da plangintzan edo diseinuan.
 - Ekintza diseinatzeko, sexuaren arabera bereizitako datuekin egindako diagnostikoa hartu da abiapuntutzat.
 - Ekintzatik sortzen den informazio guztiak edo ia guztiak sexuaren arabera bereizita aurkezten ditu datuak.
 - Ekintzarekin zerikusia duten lan-egituretan emakumeen presentzia orekatua bultzatzeko neurriak ezarri dira.
- Ekintzak berdintasunerako neurri espezifikoak inplementatzen ditu.
 - Ekintza kudeatzen duten udal langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Ekintza ebaluatzen duten pertsonak berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Ekintzaren oroitidazkiak egin dira, berdintasuna aintzat harturik.
 - Ekintzak berdintasunerako baliabideak edo neurriak ditu.
 - Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da ekintzaren inguruan sortzen den dokumentazio guztian edo ia guztian.

Hauek osatzen dute jarduera horren aurrekontua: I. kapitulua + II., IV., VI. kapituluak
AURREKONTUA, GUZTIRA = 1.565.000 + 2.199.047 = 3.764.047 euro

3. Garrantzia, generoari dagokionez.

generoari dagokionez duen garrantzia: ERTAINA (3-4)

-
- 13. Xede-populazioa: garrantzia, 2 BALIOA.
 - C. Lanbiden izena emanda dauden langabetuak kontratatzea; horien % 40-60 emakumeak dira.
 - D. Emakumeak kontratatzearen aldeko balorazio-irizpidea duten enpresentzako laguntzak.
 - 14. Aldatzeko potentzialtasuna: garrantzia, 2 BALIOA.
 - E. Udalerriko emakume langabeen kopurua murriztea.
 - F. Emakumeak lanera daitezela sustatzea, merkatu arruntean.



4. Jardueraren helburuen eta biztanleriaren azterketa.

- Jarduera honetan, berdintasunarekin zerikusia duten zenbait kontu sartzen dira; besteak beste:
 - Baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboen kontratazioa sustatzeari dagokionez (menpekotasunagatik egindako kontratazioa), emakumeen kontratazioaren ehunekoa hasiera-hasieratik hartzen da gauzate- eta ebaluazio-adierazle gisa.
 - Enpresentzako kontrataziorako —aldi baterakoa nahiz egonkorra— laguntzen deialdiaren oinarrietan “genero” aldagaia “balorazio-irizpide” gisa jasotzen da.
 - Baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboen kontratazioa sustatzeko aurrekontua 2.271.247 eurokoa litzateke, eta enpresei laguntzeko aurrekontua, berriz, 1.492.800 eurokoa.
 - Lehen helburuari dagokionez —zuzeneko kontratazioa—, biztanleria unibertsalari zuzentzen gatzaizkio (% 40-60 emakumeak eta % 40-60 gizonak), eta 2018ko ekitaldian 228 pertsonari eragin dio, honela banatuta: % 37,20 emakumeak eta % 62,80 gizonak.
 - Enpresen helburua, enpresek kontratatzea, kontuan hartuta, biztanleria unibertsalari zuzenduta dago, eta 2018an 208 pertsonarengana iritsi zen; % 53,20 emakumeak ziren, eta % 46,80 gizonak.
 - Ekintzek zer mailatan erantzuten dieten antzemandako desberdintasunei, generoaren ikuspegitik: **HANDIA** → Emakumeen laneratzearen gorakada.

5. Helburu eta ekintzen ondorio diren kontratu, hitzarmen, dirulaguntza eta laguntzen azterketa.

- Jarduketa honek ez du 2018ko aurrekonturako aurreikusitako kontratu edo hitzarmenik, baina bai ditu enpresentzako zuzeneko laguntzak, guztira 1.450.000 euro.

6. Jarduera hobetzeko hausnarketa eta proposamenak.

- Aurrerapenak, aurreko ekitaldien aldean: Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak bidaltzen dituen hautagaien artetik, Udalak emakumeen curriculumak lehenesteko nahia adierazi du, eta baldintza beretan emakumeei lehentasuna ematearen alde egin beharra dauka modu erabakigarriagoan.
- Genero-ikuspegia duen azterlanen bat kontratatzea aurreikusten da, hau da, Ogasunak baimendutako eta Eskualde Planaren esparruan kontratatutako pertsonak egindako azterlanak.

Ateratzen diren datuak taula hauetan zehazten dira:

2019. urtea	PRESTATUA	PRESTATU GABEA
UDAL LANGILEA	11	2
2020 helburua	13	0

➤ Zuzeneko kontratazioa:

2019. urtea	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 40-60	% 40-60
Iristen garen biztanleria	% 37,20 (85)	% 62,80(143)
2020 helburua	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 40-60	% 40-60
Iristen garen biztanleria	% 40	% 60

➤ Enpresek kontratatzea:

2019. urtea	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 53,20 (111)	% 46,80 (97)
2020 helburua	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 50	% 50

6.2.c.- Lanbide-orientazioa eta bitartekotza: Genero garrantzi-maila: ERTAINA.

- Langabeak lan-merkatura hurbiltzeko lanbide-orientazioa emateko ekintzak.
- Bitartekaritza-ekintzak, Lanbiderekin koordinatuta, enpresei eskatzen dituzten hautagaiak prestatzeko.

1. Jardueraren aurkezpena.

- Enplegua Sustatzeko Atalaren barruan dago.
- 9 udal langilek dihardute horretan lanean, dedikazio-ehuneko ezberdinekin: zuzeneko kudeaketako langileak (4), guztiak ere berdintasunaren arloko prestakuntza dutenak; zuzendaritza-langileak (1), zeinek berdintasunaren arloko prestakuntza baitu; administrazio-langileak (4), zeinetatik bakar batek ere ez baitu berdintasunaren arloko prestakuntzarik. Guztira: 9 pertsonatik 5ek dute berdintasunaren arloko prestakuntza.

2. Jardueraren genero-pertinentziaren analisisa, deskribapena eta helburuak.

- Jarduera bai da pertinente, generoari dagokionez
 - Langabeak lan-merkatura hurbiltzeko lanbide-orientazioa emateko ekintzak.
 - Bitartekaritza-ekintzak, Lanbiderekin koordinatuta, enpresei eskatzen dituzten hautagaiak eskaintzeko.



- Helburu nagusiak:
 - DBHko, Batxilergoko, heziketa-zikloetako eta LHko ikasleei eta gurasoei orientabide akademikoa eta lanbide-orientabidea ematea, berdintasunean. → GPS proiektua.
 - Pertsonen enplegua bilatzen laguntzea, banakako eta taldeko jardueren bidez, pertsonen banakako baliabideak dinamizatuz. → Enplegu-bilaketarako orientabidea.
 - Enpresei giza baliabideen arloko beharrak betetzen laguntzea, kontrata ditzaten. → Lanbide-bitartekaritza, Lanbiderekin.

- Jarduera honen helburu nagusia ez da genero-desberdintasuna murriztea, baina horretarako neurriak jasotzen ditu:
 - Berdintasunaren helburua ekintzaren helburu orokor gisa sartu da plangintzan edo diseinuan.
 - Ekintza diseinatzeko, sexuaren arabera bereizitako datuekin egindako diagnostikoa hartu da abiapuntutzat.
 - Ekintzatik sortzen den informazio guztiak edo ia guztiak sexuaren arabera bereizita aurkezten ditu datuak.
 - Ekintzarekin zerikusia duten lan-egituretan emakumeen presentzia orekatua bultzatzeko neurriak ezarri dira.
 - Ekintzak berdintasunerako neurri espezifikoak inplementatzen ditu.
 - Ekintza kudeatzen duten udal langileek berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Ekintza ebaluatzen duten pertsonen berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza dute.
 - Ekintzaren oroitidazkiak egin dira, berdintasuna aintzat harturik.
 - Ekintzak berdintasunerako baliabideak edo neurriak ditu.
 - Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da ekintzaren inguruan sortzen den dokumentazio guztian edo ia guztian.
 - Zerbitzu laguntzaile gisa dihardu Berdintasun Zerbitzuak ekintzaren garapenean.

Hauek osatzen dute jarduera horren aurrekontua: I. kapitulua + II. kapitulua

AURREKONTUA, GUZTIRA = 329.879 + 206.798 = 536.677 euro

3. Garrantzia, generoari dagokionez.

- generoari dagokionez duen garrantzia: ERTAINA (3-4)

-
- | |
|---|
| 15. Xede-populazioa: Garrantzia, generoari dagokionez: 2 balioa. <ul style="list-style-type: none">G. Orientabide akademikoa eta lanbide-orientabidea, guraso eta ikasleeiH. Enplegua bilatzen laguntzeko banakako nahiz taldeko baliabideak.I. Enpresei giza baliabideen beharrak betetzen laguntzea, hautagaiak eskainiz. |
| 16. Aldatzeko potentzialtasuna: Garrantzia, generoari dagokionez: 2 balioa. <ul style="list-style-type: none">J. Etorkizun profesionala genero-alborapenik gabe egin dadila bultzatzea.K. Emakumeengan enplegua aktiboki bilatzeko jarrerak eta portaerak aktibatzea.L. Emakumeen presentzia sustatzea enpresen hautaketa-prozesuetan, hautagai-zerrenden eskaintzan ekitatea bermatuz. |



4. Jardueraren helburuen eta biztanleriaren azterketa.

- Jarduera honetan, GPS proiektuaren helburua genero-ikuspegiarekin diseinatuta dago; izan ere, genero-alborapenik gabeko hautu profesionala bultzatzea du helburu. Gainera, ekintza positiboak ditu, eta helburu horretara zuzendutako gaiak eta baliabideak.
- Enplegua bilatzeko orientabideei dagokienez, helburu hori ez bide dago genero-ikuspegiarekin diseinatuta, baina bai ditu ekintza positiboak, eta emakumea ahalduntzen da enplegu-bilaketan.
- Lanbiderekiko bitartekaritza-helburua ez dago genero-ikuspegiarekin diseinatuta, baina ekintza positiboko neurriak jasotzen ditu, eta laguntza ematen enpresek giza baliabideak modu ez-sexistan hauta ditzaten.
- GPS proiektura bideratutako aurrekontua 63.565 eurokoa da, enplegua bilatzeko orientabideena 413.349 eurokoa eta bitartekaritzara zuzenduta 59.591 eurokoa; guztira 536.677 euro. Horietatik, aurrekontu osoko 63.565 euro, genero-ikuspegiarekin zuzenduta daude.
- Hiru helburuetan, biztanleria unibertsalari zuzentzen gatzazkio (% 50 emakumeak, % 50 gizonak).
- GPS proiektuaren helburua kontuan hartuta, 2018an 1.006 pertsonarengana iritsi zen; % 46,72 emakumeak ziren, eta % 53,28 gizonak.
- Orientabidea 999 pertsonarengana iritsi da; % 43 emakumeak izan dira, eta % 47 gizonak.
- Azkenik, bitartekaritza 550 pertsonarengana iritsi da: % 82,7 emakumeak izan dira, eta % 17,30 gizonak.
- Ekintzek zer mailatan erantzuten dieten antzemandako desberdintasunei: **HANDIA**

5. Helburu eta ekintzen ondorio diren kontratu, hitzarmen, dirulaguntza eta laguntzen azterketa.

- Jarduketa horrek 2018ko aurrekonturako kontratu bat du, eta, gainera, berdintasun-klausulak ditu; guztira 29.040 euro.
- 2018ko aurrekontuan, berdintasun-klausulak dituzten bi hitzarmen daude aurreikusita; guztira, 78.000 euro. Bi kontratu horiek SGG eta SEA enpresenak dira.

6. Jarduera hobetzeko hausnarketa eta proposamenak.

- Aurrerapenak, aurreko ekitaldien aldean:
 - Eragin handiagoa berdintasun-alderdietan, ikastetxeetan.
 - Zerbitzuan sartzen den pertsona bakoitzaren beharretara egokitzen jarraitzea
 - Enpresetan gehiago sartzea, emakumeak kontratatzearen aldeko sentsibilizazioari begira.
- Berdintasunerantz aurrera egiteko neurri zuzentzaileak:
 - Gai-zerrenda eta baliabideak zabaltzea, berdintasun-irizpideetan.
 - Ekintzak emakumeen premia espezifikoetara egokitzen jarraitzea.
 - Enpresei zuzendutako sentsibilizazio-lanarekin jarraitzea.
 - Lanbiderekin batera jardutea, zentro laguntzaile gisa, enpresetara hobeto iristeko.

Ateratzen diren datuak taula hauetan zehazten dira:

2019. urtea	PRESTATUA	PRESTATU GABEA
UDAL LANGILEA	5	4
2020 helburua	7	2

➤ GPS proiektua:

2019. urtea	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 46,72 (470)	% 53,28 (536)
2020 helburua	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 50	% 50

➤ Orientabidea:

2019. urtea	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 43 (430)	% 57 (569)
2020 helburua	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 45	% 55

➤ Bitartekaritza:

2019. urtea	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 82,70 (455)	% 17,30 (95)
2020 helburua	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzentzen gatzaizkion biztanleria	% 50	% 50
Iristen garen biztanleria	% 50	% 50

Aztertutako datuen arabera, generoaren garrantzi-maila ertaina dela ondorioztatzen da.

6.3.- Beste programa eta ekintza batzuk

Esklusio-egoeran dauden pertsonentzako hezkuntza-programa, ingurune irekian

Ingurune irekiko hezkuntza-programatik egiten den esku-hartze soziala gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden eta babes psikosozialeko sistema publiko eta pribatuek egiten dituzten saioei atxikitzen ez zaizkien pertsonen zuzenduta dago.



Zerbitzua	Funtz.	Partida	Deskribapena	Oharrak	2019ko aurrekontua
11.15	2323	22745	ATERPERIK GABEKOENTZAKO KALEKO HEZIKETAKO PROGRAMA	2020/04/22 kontratua arteko	91.183,47

Genero-ikuspegiari dagokionez:

- Emakumeekin babes eta jarraipen intentsiboko esku-hartzeak lehenesten dira, arrisku eta kalteberatasun egoera handiagoan daudelako (egoera horiek izan ohi dira: bakarrik egotea, patologia fisikoa, mentala edota desgaitasuna, familiaren laguntzarik gabe, hainbat testuingurutako erasoak).
- Hezitzaileak: 2 pertsona. Horietako batek berdintasunaren arloko prestakuntza jaso du 2019an.

2010. helburua: beste figurak ildo horretako prestakuntza eskuratzea eta biek Emakunderen prestakuntza egitea, emakumeek genero-izaeragatik jasaten dituzten indarkeria-egoerak ezagutu, horretan sentsibilizatu eta lantzeko.

2018ko arretaren datuak:

KALEKO HEZIKETARAKO PROGRAMA		2016	2017	2018
Arreta emandako pertsona-kopurua		377	367	438
Sexua	Gizonak	308	302	362
	Emakumeak	69	65	76

2019-2020 aldiko aurreikuspena: programari eutsi zaio, eta etxerik gabe eta etxebizitza egokirik gabe dauden emakumeen presentzia murriztuko duten bizitegi-estaldurako neurriak hartuko dira. *Horrek aurrekontua eskatzen du.*

6.4 Entitateekiko hitzarmenak

Zerbitzua	Funtz.	Partida	Deskribapena	Oharrak	Aurrekontua 2019
11.15	2325	48169	HITZARMENA: GAO LACHO DROM		59.800,00

Proiektu honen edukietan, berdintasun-ekintzak sartzeari eskatzen da, ijito-kulturako emakumeen kolektiboari lehentasuna emanez, eta neskatoei eskola-eremuan jarraitzeko laguntza (berdintasuna motibatzea, haurtzarotik jasotako prestakuntzaren bidez eta nerabezaroan eraginez).

Zerbitzua	Funtz.	Partida	Deskribapena	Oharrak	Aurrekontua 2019
11.15	2325	48145	HITZARMENA CARITASEKIN - LANERAKO PRESTAKUNTZAKO LANTEGIA		72.000,00

Proiektu honetan aldaketak egin dira, lantegi bekadunetan adingabeak beren ardurapean dituzten emakume bakarrak onar daitezten, eta emakumeak ahulago bihurtzen dituzten

migrazio-ibilbideak aintzat hartu —lagunduko dien seniderik ez baitute, baita hizkuntza-zailtasunak ere, eta akulturazio-prozesuak bizi izan dituztelako, beren genero-izaeragatik.

Ulertzen da entitate sozialak (Gao Lacho) kontratatutako langileen ehuneko jakin bat berdintasunean prestatuta dagoela.

Zerbitzua	Funtz.	Partida	Deskribapena	Oharrak	Aurrekontua 2019
11.15	2325	48197	HITZARMENA: SENDOTU		20.000,00

Hitzarmen honetan, Udalaren gizarte-zerbitzuetatik bertara bideratutako emakumeak ahalduzko berariazko lantegi bat sartu da, kolektibo hori ez baita sartzen beste zerbitzu eta erakunde batzuen eskaintzetan, prebentzio-ekintzak egiteko (beren ahuldade objektiboagatik identifikatutako kolektiboak).

Lantegiko begiraleek berdintasunaren arloko berariazko prestakuntza dutela bermatzen da.

Azkenik, altzarien eta konponketen aurrekontu-partidetan sartu, egoki eta egingarritzat jotzen bada ere, Goiuriko komunaren zonan hobekuntzak egin direla, beti ere baliabideetan (Aterpe, Etxe Irekia) dauden emakumeentzat kalitateko zona bereziak jartzeko premian pentsaturik.

Era berean, urteko azken aldi honetan, Estrada eguneko zentroko komunaren zona egokitu nahi da, Osasun Iturri kaleko aretoetan, emakumeen eta gizonen zonak argi eta garbi berezita eta babestuta egon daitezen, ahuldade-egoeran dauden emakumeen presentziaren mesedetan.

Beste datu interesgarri batzuk, interesgarritzat jotzen badira sartu beharrekoak, Gizarteratu programazioko aisialdi-espazioa da. Hizkuntzan murgiltzeko lantegietan (Norabide) eta okupazioko nahiz enplegu-aurreko lantegietan (Bidelan, Ellakuria eta praktika-espazioak) sar daitezen erraztasunak ematen zaizkie emakumeei, prestakuntza-, okupazio- edo autonomia-jarduerak egiteko mugatuta daudelarik, beren ardurapean dauden adingabeak zaindu behar dituztelako.

Gizarteratu programaziora bideratutako zenbateko osoaren barruan zehaztu daiteke aurrekontua.

7.- ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK:

Azterketa egin ondoren, ondorio hauek atera dira:

- Ez dago aurrekontu-informazioaren kudeaketarik sexuaren arabera bereizitako datuak lortzeko.
- Aurrekontuak egiten eta kudeatzen parte hartzen duten udal langileek berdintasunaren inguruko prestakuntza-falta nabarmena dute.
- Aurrekontua egiterakoan ez da genero-ikuspegia barne hartzen.
- Sailen txosten eta oroitidazkiek ez dute genero-ikuspegia aintzat hartzen.
- Ez dakigu zein den herritarren kontzientziarioa genero-desberdintasunaren eta udal-aurrekontuetan genero-ikuspegia xertatzearen interesaren inguruan, eta jarduera-eskaria.
- Ez dago metodologiarik, aurrekontua egin eta kudeatzeko orduan, genero-ikuspegiari dagokionez.
- Aurrekontua ez dago programaz programa garatuta, eta, beraz, zaila da genero-ikuspegiaren ondorio den informazioa kuantifikatzea.
- Genero-ikuspegiaren helburuak aurrekontuetan sartzeko aurreneko pausoak ematen ari da gobernu-taldea.

Gasteizko Udalaren aurrekontuan genero-ikuspegiak aurrera egiteko zenbait gomendio egin daitezke:



- Ordezkarri politikoak aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko premiarekin inplikatzeara.
- Udal sail eta zerbitzuak beren aurrekontuen prestakuntzan inplikatzeara, helburuen artean sartuz generoa.
- Udal aurrekontuko programak genero-ikuspegia aztertuz garatzea.
- berdintasun zerbitzuarekiko zuzeneko lankidetzara, aurrekontuen dinamikan genero-ikuspegia txertatzerik izan dadin.
- Prestakuntza-ikastaroak sustatzea, udal langileak sentsibilizatzeko.
- Lege-betebeharrak eta konpromiso politikoak garatzean, aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egitearen garrantziaren berri eman behar zaie herritarrei, eta horren eragina ikusarazi. Horretarako, komenigarria litzateke herritarrei galdeketa egitea, jakiteko zein neurritan eta zein zirkunstantzian ikusten den premia kotzat aurrekontuak idaztean generoa txertatzea.